

LENGUA COMÚN Y DIALECTOS VASCOS

(Mitzelena)

1. Euskara batua dagoenetik, euskalkiek (baldintza ezberdinetan) borrokatu egin beharko dute irauteko. Lehenago, mendeak atzera, herri eta eskualdeko hizkerek ere literatur dialektoekin (idatziarekin) lehiatu behar izan duten moduan.

Hizkuntza egoera guztiak aurreko egoera batean dute jatorria. Egoera jakin bat jatorrizkotzat hartzea interes, erosotasun eta beharrizan kontua da. Daukagun dokumentazioaren araberakoa da, aldakorra: datu berriak agertzen direlako edo kontuan izan ez ditugunak erabiltzen ikasi dugulako. Datu berri erabakigarriak agertuko den esperantza gutxi dago.

2. Inork ez du, orain arte, gure hizkuntza eta beste baten arteko ahaidetasun genetikorik aurkitu. Eta ez dago esperantzarik.

3. Euskara ez da hizkuntza unitarioa (edo bateratua). Euskalki eta hizkeratan banatuta egon da eta dago, literarioak (idatziak) eta ez.

Ez dago eta ez da egon hizkuntza baturik, dialekto gaberik, esan nahi da. Gurearen berezitasuna:

- Aniztasuna (hain eremu geografiko txikian)
- Hizkuntza normalizaturik (estandar...) ez egon izana (dialektoen aniztasuna mugatzeko baliogarria)

Hizkuntza termino absolutua da eta hizkuntza baten aldaera da. Aldaera bakoitzak bere arauak ditu. Euskaran (ez beste inon) ez dago guztiak biltzen dituen aldaerarik. Grezian, adibidez, genero literarioekin lotzen ziren aldaerak egon ziren, *koinéak* pixkanaka ordezkatu zituen arte.

4. Konparatista baten ikuspuntutik, hizkera edo euskalkien diferentziak oso txikiak dira. Guztiak dira hizkuntza komun baten [hizkuntza unitario (edo bateratua) ez, baina dialektoak baino egonkorragoa (aldakortasun gutxiagoduna)] aldaerak.

Aldaeren bateratzea saihestezina da: hurbiltasun dialektalagatik edota hurbiltasun geografikoagatik.

5. Vogt-en iritziz, euskalkiak oso antzekoak dira gaur egun ere, eta egitura berdintsua (fonologian, morfologian, lexikoan) izatea aitzineuskara komun batetik datozen seinale da.

Lacombe eta Gorostiagak uste dute bi euskalki baino ez daudela: bizkaiera edo mendebaldekoa, eta gainerakoak. Uhlenbeck urrunago doa, bi hizkuntza ezberdin direla esanez.

6. Mitxelena Gorostiaga, Lacombe eta Uhlenbeck-ek proposatzen duten adarkatze bitarraren kontra dago.

Bizkaieraren ezaugarri bereizgarritzat (propiotzat) ditugun askok eremu zabalagoa hartzen dute. Adibidez: $-a + -a > -ea$: *arriba/arrebea* (Gipuzkoako eremu zabala); *egin* laguntzailea (*-eza*-ren orde); *erten*, *irten*, *urten* “salir” zentzuan (Donostiara arte); bestalde, ekialdekotzat dugun *-kin* (Bizkaian ere sartzen da).

Hala ere, berezitasunak ere badira, iparraldeko bizkaiera eta gipuzkeraren artean, eta Landucciren hiztegiaren eta bizkaieraren artean ikusten denez.

7. Bizkaiera dialekto bat da, bat gehiago besteen artean, ez bi dialektoetako bat. Tovar: “un dialecto bien caracterizado, [...] pero no independiente.” Bere berezitasuna, mutur batean egoteari ere zor zaio; muturretako dialektoak antzinatasunen gordeleku izan ohi dira, eta baita berrikuntzen iturri ere (beste hizkuntzekiko kontaktuagatik).

Gogoratu *hiperbizkaiera* (hizkuntzaren izaerari baino, pertsona talde baten interesei lotua): bizkaiera da bertan bakarrik agertzen bada eta besteetan ez badago.

Bizkaiera eta beste dialektoen arteko ezberdintasuna handitu baino ez da egin XV-XVI.m.tik aurrera.

Bizkierazko berezitasun ugari berrikuntza modernoak dira (ez XVI, ez XVII, ezta XVIII-koak ere, beharbada: *gintzazan*, *dauz*...

Berezitasunak izen deklinabidean:

- *gaz* komitatiboa (soziatiboa). Berezia dena *-ga-* da (*-z*: instrumentala baita): numeroaren arabera *-gaz/-kaz* eta genitiborik gabe (*-kin* ez bezala).

- Datibo plurala: ekialdeko muturrean *-er* eta mendebalderago *-ai/-ei*.

Izenordain indartsua bizkaieraren ezaugarritzat dugu, baina gogoratu bizkaieratik kanpoko: *neurk*, (cf. *nihaurk*), *zeurk* moduko ergatiboak.

Mendebaldeko beste berezitasun bat: *nortzuk* (*bat + -zu* lez)

Aditzean berdintasun ugari. Ezberdintasun handienak laguntzaileetan. Hala ere, ez dira hainbestekoak: *deust / dit / deraut* (*draut*, *daut*, *dereit*, *deit*). Orain gutxi, *-eza* laguntzailea ohikoa zen Bizkaian. Denborarekin *-(g)i-k* (*egin* aditza) ordezkatu zuen *-eza* mendebaldean, baina baita Gipuzkoako eremu zabal batean ere. Oinarri komun baten aldaerak dira.

Hitzen eraketan, euskararen eremu osoarentzako komunak diren elementu asko daude. Toponimian: *-aga*, *-(k)eta*, *-zu*. *-bait* aurizki orokorra da (gaur egun mendebaldekotzat): *Celangoa baysta amea alangoa oyda albea*.

Mitxelenak ez du uste lexikoak dialektoak banatzeko balioa duenik. Hiru adibide: *jazo* (mend.) / *gertatu* (erd.) / *agitu* (ek.); *arerio* (mend.) / *etsai* (erd.) / *izterbegi* (ek.).

8. Fonologian ezer ez, *barri* / *berri*, *baltz/beltz* lako garrantzi gabeko prozesuetatik aparte. Aipatzekoa *u-* : *i-* hitz hasieran: *(h)uri* / *(h)iri*, *ule* / *ile* [adibideak nireak].

9. Berdintasun denek ez dute jatorri bera, askotan berrikuntzen ondorio (dialekto denek konpartitu dezakete).

Euskara batu baten elementu guztiak ez dira zertan izan aitzineuskararenak [ondo ulertu badut! 305.or.]. Artikulu-sistema eta *bat/batzu* zehaztugabea, erromantzeetan eta beste mendebaldeko hizkuntzetan (germanikoa, zeltikoa) sasoi berean agertu da.

Bizkaieraz: - erg. sg.: *domeka* + *-a* + *-k* > *domekeak*
- abs. eta erg. pl. = *domekak* (biek forma bera)

Arrazoiak: plurala eta lokatibo singularra berankorra dira; *-a* + *-a* > *-ea* legea indarrean ez zegoenean.

10. Datatzen zaila bada ere, badirudi existitu zela euskal dialekto historikoen iturri batua (EBZ, gogoratu EBZ≠Aitzineuskara). Hizkuntzen berezko joera da dibertsifikatzea (desberdintzea), baina aldaera denek ez dute lortzen hizkuntza izateko autonomia. Gertatu izan da aldaera bat aukeratzea hizkuntzaren ordezkari gisa. Horretarako, aldaera horrek besteak baztertu eta haien gainetik jarri behar da (grezian *koinéa*; antzinako Italian ere, latinak oscoarekin, umbroarekin... egin bezala).

11. EBZaren datazioa posible?

/h/ fonema (hasperena):

- ez dago Goi Nafarroan X.m.rako
- Arabako euskaran XIV.m.an oraindik badago
- Zaila esaten Bizkaian eta Gipuzkoan

/h/ fonemaren kokapena: bokal aurretik, artean zein atzetik; eta baita ozenen ondoren ere (*-lh-*, *-rh-*). Hau ohikoa da akitainar onomastikan eta Lergako inskripzioan. Sofuentes-en (Zaragoza) *-nh-* ageri da. Hasperena II-X.m.en artean galdu zen.

X-XI.m.etan ohikoa zen *baltz*, *barri* / *beltz*, *berri* kontrastea. Garrantzitsuagoa da baina, *(h)uri* / *(h)iri* oposaketa (Araba osoa hartzen zuen, eta Nafarroan ere sartu zen). *Ili-*,

Irun- (-ilon-) milurteko bat lehenago dokumentatzen da; Mitxelenak dio oposaketa hau, aurreko bokalaren asimilazioa, errazagoa dela (atzeakoarena (h)uri / (h)iri) baino).

Badirudi: *Ombe > Vm.me > ume.*

12. Hizkuntzak [edo aldaerak] ez dira euren kabuz bateratzen. Nola sortu EBZ?

Hizkuntza batuak dialekto bat gailendu eta besteak desagertu direla esan nahi du. Bateratzea, berriz, kohesio sozialaren ondorioa da.

13. Erromanizazio linguistikoak (latinizazioak) euskal hiztunen eremuaren asko murriztu zuela suposatzen da. Baliteke erromatarrengandik babesteko euskaldunak bateratu izana, eta hori, monarkia nafarraren oinarri izatea; eta beraz, EBZ bateratzearen ondorio izatea.

“Barbaroen inbasioek eragindako kaosak kantabroen eta baskoien independentzia erraztu zuen” (A. Barbero eta M. Vigil). V-VI.m.an kanpokoekiko mendekotasuna makaldu zen. Ondorioz, harremanak ugalduko ziren, eta bateratzeko eta zentralizatzeko joera handitu (dialektoen banaketaren eta isolatzearen kalterako, eta hizkuntzaren forma komunak ezartzeko lagungarri).

Kristautasuna sartu eta egonkortzeak orden berria finkatu zuen. Honen gailurra (politikoki, batez ere) Nafar erreinuaren sorrera izan zen; Bizkaiko (eta Durangoko) jaurerria ere kontuan hartzekoa da.

Bizkaia da izaera sendoena izan eta mantendu duen euskal eskualdea; Iruñea eta beste hirietako eraginak gehien saihestu dituen. Honek eta muturreko izaera izateak azaldu dezakete bizkaieraren izaera berezia.